

BATUZ, ALDATU

Lehenik eta behin, nola ez, milesker KARMEL aldizkariko lagunei Kontseiluaren erronka garrantzitsuenak aldizkarian partekatzeko aukera eskaintzeagatik. Askotan esan izan dut KARMEL dugula Kontseiluko familiako kiderik txikiena, baina hori horrela izanagatik, Kontseiluaren jarduna lau haizetara zabaltzeko bozgorailu erraldoia izaten jarraitzen du. Eskerrik asko, beraz, lagunok.

Ekainaren 19an, izaera eta eremu askotariko 99 elkartek eta erakundek hizkuntza-politiketan jauzia egiteko proposamen adostua aurkeztu genuen. Eta, nola ez, bertaratu ezin izan bazen ere, KARMEL ere badugu elkarte edo erakunde horietako beste bat.



Batuz Aldatu *dinamikarekin bat egin duten eragileen familia-argazkia Kursaal*en.

Elkarrekin adostutako dokumentua aurkeztu zen ekainaren 19an Donostian, hain zuzen ere, etorkizuneko hizkuntza-poli-

tikek izan beharreko helburua, eta helburu hori erdiesteko politiken norabidetzeak jasotzen dituen dokumentua.

Askotan, akaso gehiegitan, erabili izan dugu geure herrian historiko hitza, eta beraz, bertako argazkiari ez diogu izendapen hori esleituko. Halere, ziklo berri baten hasiera islatzen duen argazkia izan zela esaterik badugu: hizkuntzaren normalizazio-prozesuan jauzia egiteko grina islatzen zuen argazkia.

Halaber, Kursaaalen ateratako argazki horrek edukian ez ezik, partaideetan ere berrikuntza handia ekarri zuen. Gizarte osoa zehartzen duen auzia da hizkuntzarena: harremanen oinarria da, eta eremu guztian gertatzen dira modu bateko zein besteko hizkuntza-praktikak. Horretaz gain, eragile sozialek, ekonomikoek eta abar hainbat erabakigunetan hartzen dute parte, eta beraz euskalgintza iristen ez den eremuetan eragiteko aukera dute. Hori dela eta, gizarte-eragileek ere erantzukizunez jokatzeko konpromisoa agertu nahi izan dute dinamika honen bidez. Norbere esparru eta harreman-sareetatik jardunez eta eraginez, denon eskubideak bermatzeko urratsak egin behar ditugulako, hain zuzen. Finean, hizkuntza-politika erdigunean berriz ere kokatu nahi izan dugu guztiok batera.

Horrela, askotariko eragileak ekartzea lortu dugu. Euskalgintzako eragileez gain, Euskal Herri osoko eragile sindikalak, elkargoak (abokatuak, sendagileak, ekonomialariak, erizainak, pediatrak...), unibertsitate-eremua, gazte-erakundeak, mugimendu feminista, eremu kooperatiboa, kirola, aisialdia, enpresak... Hizkuntzaren normalizazio-prozesua puzzle baten gisa irudikatzen badugu, puzzle horretako hainbat pieza elkartu ditugu, gure artean egoki ahokatzeko asmoz. Horrek islatzen du beraz, dinamika honen lehen hitzaren esanahia **BATU**.

Halere, eduki batek haratago, aurrera egiteko nahiak batu gintuen ekainaren 19an, aldatzeko nahiak, zinez uste dugulako **BATUZ ALDATU** ahal izango dugula. Horrexegatik, aurrera begira jarri dugu geure burua.

Nondik gatoz?

Ez dugu, ez, ikuspegi historikoaren garapen sakona egiteko asmorik. Halere, *Batuz Aldatu* dinamika ulertzeko beharrezkoa da Kurtaal jauregira berriz ere jotzea bost urte lehenago, hain zuzen ere, 2016ko abenduaren 16an.

Egun hartan, eta bi urteko prozesu sakonaren ostean, Europako hogeita hamar hizkuntza gutxituren normalizazioaren alde lan egiten dugun ehun eragilek hizkuntza-eskubideak bermatzeko bide orria aurkeztu genuen: *Hizkuntz Eskubideak Bermatzeko Protokoloa*.

Edukiaz harago, lanketa hark erakutsi zuen oso garrantzitsua dela eragile desberdinen arteko lanketa bateratua proposamen sendoak egiteko. Zeinek bere egoeratik, baina helburu amankomunera iristeko bidea elkarrekin jorratzeko borondatea izan zen proiektuaren bereizgarria.

Egia da, bai, Protokoloaren lanketak bazuela prozesu hori errazago bihurtzen zuen ezaugarriarik. Izan ere, egoera gutxituan dauden erakundeen arteko adostasuna bilatu nahi genuen, eta, nola ez, eragile horien gaiarekiko atxikimendua erabatekoa zen.



Hizkuntz Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren aurkezpena 2016an.

Halere, berriki, Euskal Herrian bertan ikusi ahal izan dugu bestelako eragileekin ere badagoela adostasunak eraikitzerik hizkuntza-normalizazioaren esparruan. Hori erakutsi digu EUS-KARALDIA ekimenak. Finean, hizkuntzaren normalizazio-prozesuaren hanka soziala sendotzen askotariko eragileak biltzea eta aktibo bihurtzea lortu du aipatu dinamikak, hizkuntzaren normalizazio-prozesua bizkortzeko aukerak ahalbidetuz.

Idea horri lotzen zaio *Batuz Aldatu* dinamika. Alegia, euskalgintzaz haragoko eragileen inplikazioa eta konplizitatea behar ditugu hizkuntza-normalizazioaren alde politikoan ere prozesua bizkortzeko. Zeinek bere eremutik eragiteko garaia iritsi da.

Bestalde, izan da, bai, *Batuz Aldatu* dinamikaren azkartzea eragin duen bestelako arrazoirik. Kontseiluak lauzpabost urte daramatza antzeko ideia behin eta berriz errepikatzen: hizkuntza-politiketan jauzia egiteko unea da, hizkuntza-politikak birpentsatzeko unea da.

Izan ere, zalantzarik ez dago azken hamarkadatan urratsak egin direla euskararen normalizazio-prozesuan. Azken hamarkadetan asko ikasi eta ikusi dugu hizkuntzaren garapenerako estrategiez, soziolinguistikaz eta hizkuntza-politikez. Aurrerapen garantzitsuak gertatu dira horiei esker; eskumena duten eremuetan, batik bat. Baina jada ez da aski. Hala erakusten dute, esaterako, 2011 eta 2016ko inkesta soziolinguistikoaren eta Kale Erabilera neurketen emaitzek: Datuek erakusten dute indarrean dauden hizkuntza-politikek bide bat egin dutela, baina jauzi berriak egiteko hizkuntza-politikak eguneratu eta berri behar direla, adostutako helburuen lorpenerako eraginkor eginez.

Horretaz gain, mundua horren gogor jo duen (eta jotzen duen) pandemiak ere eragina izan du *Batuz Aldatu* dinamika azkartzeko erabakian. Testuinguru berri honek lehendik zetozen auziak gordindu besterik ez ditu egin, eta inoiz baino begi-bistarago geratu da euskarak eta hizkuntza-eskubideek bizi duten *im-*

passea. Hizkuntza-politikak berrikusi, indartu eta jauzi berri bat egiteko garaia dela erakutsi digu honako egoera honek.

Jauzi egin behar da horregatik. Gaur egungo hizkuntza-politiken langa gainditu behar dugu. Hori dela eta, guztiok erantzukizunez jokatu behar dugu. Norbere esparru eta harreman sareetatik jardunez eta eraginez, denon eskubideak bermatzeko urratsak egin behar ditugu, gizarte berdinzaleago eta kohe-sionatuagoa lortzeko giltzarria baita.

Helburua eta norabidetzea berrituak

Azken boladan gehiegitan ari gara katramilatzen ezagutza/erabilera dikotomian. Are gehiago, nahi baino gehiagotan erabiltzen da dikotomia hori euskararen egoeraren erantzukizuna euskaldunaren bizkarrean jartzeko, erdal elebakarra inolako erantzukizunetik salbuetsiz.

Ideia hori justua ez izateaz gain, errealitatea desitxuratzen du, eta horrexegatik, azken hilabeteotan eragileekin jorratutako lanketan dikotomia hori gainditzea egokitzat jo dugu, horren orde bestea elementu bat mahai gaineratuz: euskara eroso erabiltzea.

Eta, erabilera erosoaren hariari tiraka definitu dugu hurrengo urteetako hizkuntza-politikaren helburua:

Euskararen erabilera erosoarako baldintzak sortzea da helburu nagusia. Horretarako, hizkuntza-eskubideak eremu guztietan bermatu beharko dira, hala nahi duen edonork ez dezan euskara erabiltzeko inolako eragozpenik izan.

Erabilera erosoarako baldintzei buruz ari garenean, zera esan nahi da: herritarrak ahalegin berezirik egin beharrik gabe, euskara eroso erabiltzeko baldintzak izango dituela, euskaraz hitz egiteagatik deseroso edo baztertua sentitu gabe.

Hortaz, agertoki horretan hizkuntza-eskubideak bermatuko dira, eta euskaraz duintasunez bizi ahal izateko baldintzak be-

teko dira. Finean, bazterkeriak alboratuko dira; egiturazkoak edo legezkoak ez ezik, baita ekonomikoak, sozialak edo kulturalak ere, agerikoak zein inplizituak. Izan ere, bazterkeria horiek hiztun-komunitatearen duintasunaren aurkako eraso-tzat joko dira, euskaraz bizi nahi duenarentzako zangotraba-tzat.



EUSKO elkarteko eta ELKAR fundazioko ordezkariak helburuak eta norabidetzeak aurkezten.

Gainera, eragileekin egindako lanketaren ondorioz, helburua ez ezik, helburu horretara iristeko hizkuntza-politiken norabidetzeak ere zehaztu ditugu. Horrela, etorkizunean hizkuntza-politiketan hartzen diren erabakiek eta neurriek zein norabide izan beharko duten adostea lortu dugu hamarnaka eragilek.

Zalantzarik ez dugu euskararen erabilera kate luze baten katebegi gisa irudika genezakeela. Izan ere, erabilera hori gauzatu dadin, aurreko baldintza horiek guztiak bete beharko dira; elkarri kateatuta datoz. Eta, era berean, erabilerak ere eragingo die gainontzeko katebegiei. Horregatik diogu euskararen erabilerarako funtsezkoak direla katebegi guztiak behar bezala osatuta egotea. Euskararen garapena kate oso legez ulertu behar delako, katebegiek elkarri eragiten.

Horiek esanda, eta euskararen erabilera erosoarako baldintzak sortzea jomuga izaki, **bi ardatz** nagusitan koka dezakegu helburu hori lortzeko norabidea. Alde batetik, **hizkuntzaren ezagutzaren unibertsalizazioa bultzatu** beharko da, herritar guztiek euskaraz aritzeko gaitasun egokia izan dezaten. Eta, bestetik, **euskara eroso erabiltzeko eremuak sortu, garatu eta elkarlotu** beharko dira, hala nahi duen edonork ez dezan izan euskara erabiltzeko inolako eragozpenik. Bi ardatz horiei lotu beharko zaizkie, beraz, etorkizuneko politikak.

Hurrengo urratsak

Etorkizunari dagokionez, bi esparru bereizi nahi izan ditugu. Batetik, dinamikak berak etorkizunean izango dituen erronkak. Bestetik, eragileek bere gain hartu dituzten konpromisoak.

Lehenari lotzen bagatzaizkio, hiru erronka nagusi jarri dizkiogu geure buruari:

1. **Edukia zabaldu eta eragile gehiagorengana iristea:** jorratu ez diren gizarte-eremuetara iristeko beharra agerikoa da, bai eta bat egin duten gizarte-eremuetako beste eragile batzuetara iristekoa ere. Eta nola ez, hizkuntza baten motor diren herritarrengana ere heldu behar du Kontseiluak.
2. **Arloetako estrategiak definitzen hastea:** euskararen normalizazio-prozesuan eragiteko, eta dokumentuan bildutako lehentasunetatik abiatuta, arloz arlokako lanketari ekitea da xedea.
3. **Adostasun sozialetik adostasun politikorako jauzia erdiestea:** hizkuntza baten normalizazio-prozesua soziala eta politikoa da. Hanka sozial sendoa behar du, baina bai eta hanka politiko sendoa ere. Horrexegatik, Kontseiluaren asmoa da adostasun sozial trinko horiek adostasun politiko bihurtzea.



Kontseiluko idazkari nagusia, ondoan bazkideak dituela, etorkizuneko erronkak azaltzen

Horiek dira, beraz, etorkizunari begira Kontseiluak bere buruari jarritako erronkak, eta horiekin aurrera egiteko konpromiso publikoa agertu zuen ekainaren 19an. Halere, badira *Batuz Aldatu* dinamikarekin bat egin duten eragileek hartutako konpromisoak. Izan ere, etorkizuneko bidea ez dugu ulertzen eragile horien guztien konplizitaterik gabe. Horrela, hona hemen eragileok *Batuz Aldatu* proposamenarekin bat egindakoan hartutako konpromisoak:

1. Dokumentuan jasotako edukia gizarteratzea, ahalik eta herritar sektore zabalenera helaraziz eta horien aldekotasunak lortzeko ahalegina eginez. Horretarako, lehen urratsa, erakunde bakoitzaren oinarri sozialarekin partekatzea izango da.
2. Dokumentuan jasotzen direnak bere egitea. Ondorioz, dokumentuan jasotzen diren hizkuntza-politikari buruzko ikuspegiak eta proposamenak defendatzea.
3. Elkarlanean jarraitzeko konpromisoa, arloz arlo hizkuntza-politikan hartu beharreko neurri zehatzak eta horiek aurrera ateratzeko dinamikak definitzen.

Jauzia eta ilusioa

Esan behar dugu prozesu interesgarri bezain trinkoa garatu dugula azken hilabeteotan. 2020ko abenduan, Donostiako Aquariumean antolatutako *Urteko irakurketa* izeneko ekitaldian aurreratu zuen Euskalgintzaren Kontseiluak adostasun sozialak eraikitzeko prozesuari ekingo ziola. Are gehiago, hasierako dokumentua ere prest zegoela aurreratu zuen.

Ondorengo hilabeteetan lanketa ikaragarria egin dugu. Hainbat mintegi, hamarnaka bilera (buruz burukoak eta on-line)... Ehundik gora ekarpen jaso zituen dokumentuak, eta horiek guztiak hala edo nola txertatzen saiatu izan gara eragileek haien ekarpenak identifika zituzaten, eta beraz, dokumentua beraiena ere badela sentitzeko.

Areago, eragileekin adostutako helburua eta norabidetzeak oinarri, Kontseiluak arloz arlo politiken norabidetzeak ere zehaztu ditu, eta horiek baliatuko ditu etorkizun laburrean lankidetzadynamika eta -aliantza berriei bidea emateko.

Eta, akaso, honetan guztian garrantzitsuenak: lortu dugu askotariko eragile oso desberdinak hizkuntzaren normalizazio-prozesuari buruz hausnartzen jartzea etorkizuneko beharrak identifikatzeko. Eta, inolako zalantzarik gabe, lortu egin dugula esan behar da.

Ziklo berri bati hasiera eman nahi diogula esatea gehiegitzo izan daiteke, akaso. Halere, Kontseilua sinetsita dago orain dela hizkuntza-politiketan jauzia egiteko unea, eta jauzi hori eragiteko nahitaezkoa dela askotariko eragileekin batera jardutea. Zinez uste dugu gainerako eta askotariko eragileei entzunez, haiekin batera estrategia definituz, alegia, elkarrekin lan eginez, jauzia egiteko aukerak biderkatuko direla, aukera berriak zabalduko direla, zabalduko ditugula euskararen normalizazio-prozesuan.



Laboaren doinuari jarraitzen zioten jauziek irudikatu zuten etorkizuna

Bai, noski, lan egiteko modu berriez ari gara, eta hor ere eus-kalgintzak ikasi beharko du orain arte horren hurbilekoak izan ez diren eragileei arreta jartzen eta haien proposamenak kudea-tzen. Segurki, hasieran kosta egingo zaigu lan-molde berriei ego-kitzea, baina esan bezala, sinetsita gaude batasunak aldaketarako aukerak zabalduko dituela. Horrexegatik, beraz, *Batuz Aldatu*.

Andoainen, 2021eko irailaren 1ean.

ERANSKINA

BAT EGIN DUTEN ERAGILEEN ZERRENDA

ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ TALDEA
AEK - ALFABETATZE EUSKALDUNTZE KOORDINAKUNDEA
AGIRRE LEHENDAKARI CENTER
AHOTSENEA
ARTEZ
ATHLETIC CLUB FUNDAZIOA
BAI EUSKARARI ELKARTEA

BEHATEGIA - EUSKARAZKO HEDABIDEEN BEHATOKIA
BERRIA TALDEA
BILGUNE FEMINISTA
BIZIPOZA
BIZKAIA IRRATIA
BIZKAIKO ABOKATUEN ELKARGO OHORETSUA
BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLA
DANTZAN
DINDAIA FUNDAZIOA
EGI - EUZKO GAZTEDI
EHIGE - EUSKAL HERRIKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEA
EHNE SINDIKATUA
EIZIE - EUSKAL ITZULTZAILE, ZUZENTZAILE ETA
INTERPRETEEN ELKARTEA
EKOLOGISTAK MARTXAN
EKONOMISTEN EUSKAL ELKARGOA
ELA SINDIKATUA
ELHUYAR TALDEA
ELKAR FUNDAZIOA
EMUN KOOPERATIBA
ERNAI
ESK SINDIKATUA
EUSKAL AKTOREEN BATASUNA
EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA
EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA
EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
EUSKAL HERRIKO ANTZERKIZALE ELKARTEA
EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO
OFIZIALA- BIZKAIKO DELEGARITZA
EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA
EUSKAL HERRIKO GUTUN SOZIALA
EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK
EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARA
EUSKAL HERRIKO LABORARIEN BATASUNA

EUSKAL HERRIKO LEHEN MAILAKO PEDIATRIA ELKARTEA
EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA
EUSKAL KONFEDERAZIOA
EUSKAL KONTSUMITZAILEEN ALKARTEA
EUSKAL MEMORIA FUNDAZIOA
EUSKAL MONETA
EUSKAL WIKILARIEN ELKARTEA
EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA
EUSKARAGILEAK ENPRESEN BATZORDEA
EUSKO IKASKUNTZA
EZKERRABERRI FUNDAZIOA
FARMAZILARI EUSKALDUNEN ELKARTEA
GARABIDE
GAZTE ABERTZALEAK
GEREDIAGA
GERRIKO KULTUR ELKARTEA
GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO PRESTUA
GIPUZKOAKO ERIZAINEN ELKARGOA
GIPUZKOAKO SENDAGAIGILEEN ELKARTEA
GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA
GIPUZKOAKO URTXINTXA
GURE ESKU
(H)EMEN ELKARTEA
HEIZE - EUSKAL ESKOLA PUBLIKOEN ZUZENDARITZA
ELKARTEEN FEDERAZIOA
HEKIMEN - EUSKAL HEDABIDEEN ELKARTEA
HIK HASI - EUSKAL HEZIKETARAKO EGITASMOA
HIRU SINDIKATUA
HIRUKI LARROSA
HITZEZ EUSKALTEGIA
HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA
IBAIA - IKUS-ENTZUNEZKOEN EUSKAL EKOIZLE BURUJABEEN
ELKARTEA
IKAMA - IKASLE ANTOLAKUNDEA

ILAZKI EUSKALTEGIA
IRRIEN LAGUNAK
JAKIN ALDIZKARIA
KARMELDARRAK
KATXIPORRETA
KONFEKOOP - EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOA
KRISTAU ESKOLAK
LAB SINDIKATUA
MAIZPIDE EUSKALTEGIA
MINTZAIAN - HENDAIAKO EUSKARA ETA KULTUR ELKARTEA
MINTZALASAI
MINTZANET
MONDRAGON KORPORAZIOA
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
NAFARROAKO ATENEOA
NAFARROAKO ETA ERRIOXAKO IKA
OEE - OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEA
OINHERRI
OLATUKOOP
ORDIZIA RUGBY ELKARTEA
PUNTUEUS FUNDAZIOA
REAL SOCIEDAD FUNDAZIOA
SORTZEN
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
STEILAS SINDIKATUA
TELESFORO MONZON eLab
TINKO EUSKARA ELKARTEA
TOKIKOM - TOKI KOMUNIKABIDEEN BATERAGUNEA
UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA
URRATS EUSKALTEGIA
UZEI
ZABALIK AMIKUZEKO EUSKALGINTZA

Paul Bilbao Sarria

Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusia.